

zakilixut

© Olariagak



Nora Arbelbide | BAIONA

ATZEKOZ AURRERA

Lortu arte

Baionako Gaztetxeko kideek eraitsi zuten atzo beren eskuekin eraikitako ostatua



Atzo arratsa azken gaua izan zen Baionako Gaztetxearentzat, hiru hilabetez irekia egon ondoren. Azken gaua, hain zuzen, etxeko jabeak Herriko Etxetik eta auzoengandik jasan presioengatik, hortik joatea manatu zaielako.

Azken taldeak, azken kan-tuak, azken notak, azken dantzak, azken tragoak... Atzo arratsean bururatu zen Floride deitu industrialdean aurkitzen den Gaztetxearen eta bera sortu zuen Aurreku elkartearen arteko historia. Behar den bezala bukatzeko, haien eskuekin eraiki ostatua hautsi zuten gaztetxeok bart. Gehien hausten duenaren lehiaketa baten bidez lurrera bota zuten. Azken gara-gardoak eman, eta azken aldikotz atea itxi zuten. Horrela, giltzak jabeari emateko ordua iritsiko zen.

Hala bukatu zen joan den 23an, Negu Gorriak-en kontzer-

tuaren ondoren, lehen aldikotz publikoari atea ireki zizkion Gaztetxea. Gudu bat galdua izan bada ere, ez da oraindik amore emateko ordua iritsia. Herriko Etxeak eta auzoek sortu presioengatik hetsi bada ere, Aurreku elkarteko kideek «dena» eginen dute beste gaztetxe baten irekitzeko. «Azpijoko horien gainetik iraganez», presio publiko baten antolatze-ko mentura dute.

«Azpijokoen gainetik, segi aitzina»

Auzoek eta Herriko Etxeak gaztetxekoei ez zieten deus erran aitzinetik. Baina jabeari bai ordea. Jean Grenet Baionako auzapezak bi gutun idatzi dizkio, galdeginez jabeari arrabots gehiegikeriaz arduratzea. Azpimarratuz, deus ez balitz egina, normalki Herriko Etxearen gain diren garbiketak jabeak zituela ordaindu beharko. Aldiz, Gaztetxekoei, «Baionar guzien auzapeza» zela iragarri zien. Auzoek beren aldetik, zazpi izen bildu dituzte, helburu bera lortzeko.

Gaztetxekoei izenpedura honi erantzunez, Baionan Gaztetxe bat behar dela galdegiten duten 1.000 bat izen bidu zituzten. «Horrek garbiki adierazten du Baionan Gaztetxe bat beharrezkoa dela. Eta zinezko gaztetxe baten beharra, erran nahi baita Herriko Etxeak gazteei uzten duen gela bat, baina gazteek

kudeatua», adierazi dio EUSKALDUNON EGUNKARIARI Johanko Elizetxe Gaztetxeko ordezkariak.

«Hori lortu arte jarri dugu kanpaina bat abian. Herriko etxeak ez duenez nahi gelarik utzi, herriaren plazak hartuko ditugu eta gaztetxe bat balira bezala erabili», iragarri zuten geztetxeko kideek.

Ostiralean iragarri, eta larunbatean berean gaztetxe ibiltari-

rian ibili ziren hirian zehar. DJ Alf eta DJ Niko kamioiaren barnean, Baionako gunere berezietan geldituz. «Gure burua erakutsi dugu», erran zuen Fred Gaztetxeko kideak. «Hemendik aitzina, hainbat ekitaldi eginen ditugu, Gaztetxe berria lortu arte. Heldu den kontzertua Baiona Ttipian, Patxokin eginen dugu maiatzaren 12an. Gaztetxean egin beharra zen», gehitu zuen.



BOB EDME

Gaztetxeko kideek baionarrei erakutsi diete asteburuan zer den gaztetxea, kamioi batean.